

ARAMOTZ

POR JESUS DE ALTUNA

Mendidi auetako gallurrik geyenak Dima'ko erriaren lurraldeak ba'dira-be Lemona, zornotza (Amorebieta), Durango, Mañaria, Izurtza, Dima eta Yurre'ren erdian, aurkitutzen dira, Ibaizabal, Arratia eta Mañaria ibaya'ren bitartian. Orregaitik gorago esan dogun edozein erri oietatik igon litzake, batez-bere, bitxabalez bertaratutzen darinak. Eta bultziz edo trenez do-yana, Lemona, Zornotza eta Durango'tik egokien... ordu bat baño lenago erdutzen dalako beren lenengo aitzetara.

Aramotz'ko mendidi'au, Sorkalde'tik Sarkalde'ra dago, baña, ia luzetan gaña zabal'era dauko. Lurralde edo aitzarte au esautzen daben mendigoizaleak asko dira, baña ez danak eta, ori oldoztuta asi gara lerro-aeuk idatziten mendia'ren akatzak eta ederkizunak azalduaz.

Mendidi onek, Aramotz'ek be Bizkai-ko beste mendi askoren-lez, galdu dau lenagoko edertasunik, gauza bikañik asko. Lenago, alderdi guztiak, aitz-bitarte guztiak bedar txiki goxoz jantxita, ardi, auntz, zaldi, bei ta genetiko aberez beterik egozan, da aien irrinxte, orroi ta arran edo txillin otsak, ze alaya zan ¡Zenbat bidar aitzik-aitz eta zakonik-zakon pozez kurutzetu dogu alderdi guztietara mendidi ori!

Gaur, orain? Beren inguruetan ezdago gaztanarik, areitz ez pagadirik, lerdoiz edo punidiz beterik dago aitzarte'raño. Ezta ikusiten artaldi bat edo bi baño, eta udan auntz banaka bat eta zaldi batzuk. Ze itxusiak diran gure mendiak, lerdoioz eztalduta eta abere barik!

Iparraguirre olerkarita abeslari ospetsua bizi ba'litzake, abestu'ko ete luka barriz, atserritik gure lurralde'ratu zanian abestu ebana?

Ara nun diran mendi maiteak

Ara nun diran zelayak,

Baserri eder zuri-zuriak

Iturri eta ibayak...

Ez dot uste barriz abestuk leuke nik, eztaukielako gure mendiak aintxi-
ñako alaitasunik.

Ulle zuriak buruan daukaguzanok auetara uste dogu, beste era batera
ikusitakoak, baña ori ta guzti-be, ba'du ikuskizun ikusgarri'rik men-
di talde auek, ze asko dira mendidi onek daukazan gallurak euren utxa ta
guzti. Bertatik ikusten dana, Bizkai'rik erdia baño geyago da Esan doguzan
gañak eta aitz muzturrak, garrantzitzuenak auek dira; Belatxikieta 675
neurkin (metro), Urtekoatxa 746 nkn, Urtemondo 789 nkn., Kañometa 760
nkn, Gainzorrotz 781 nkn, Artaun 907 nkn, Mugarraitz 964 nkn, aitzik zo-
rrotzena, Artatxagan 1.005 nkn, Leungane 1.009 nkn.

Txikiagoak asko dira, eta zakonak ez gitxi aitz bitartian.

Leza asko-be ba'dira aitzarte oietan, orain biar-litzakenikusketarik egin-
barik, Bi Belatxikieta'n, iru edo lau Urtemondo inguruan da abar. Oierariko
batzuetan sartuak gera, baña ez-genduban euroen azkenik aurkitu gure lo-
karri ta treznak kazkarrak ziralako araso-oietarako. Eztogu eutzun iñoiz,
leza jetsitzalle edo espeleologorik ibilli danik. Nire ustez ongi litzake ikus-
keta batzuek egitea.

Aramotz'ek eztauko ur askorik. Iturri bat dago Mugarraitz eta Artatxa-
gan'en bitartian, Mugarreko-landan, edo Mugarraitz'en Sarkaldian. Beste
bat Gainzorrotz eta Apala aitzaren bitartian, baita Belatxikieta onduan eta
Aramotz'eko landa ta beren inguruetan.





Eiza edo kazu gitxi izan da mendi auen, goi-aldean ollargor batzuk, eta usoak igarokeran eta eiza andirik gitxi edo bapez gure aldian beintzat.

Belatxikieta'ko landan dago basa-txoun edo ermitatxu bat, zornotzatar ospetsu batek eginda, orain urte gitxi Inaki Deuna'rentzat, eta bertan Gal-dacano'ko «Ganguren»'ek ipiñi eban, biardan baimenaz, Menton'go Bernardo mendixalea'ren Jabolea. Udan jai guztietan ospatutzen da jaupa edo meza amaika ta erdietan.

Aramotz izenak, gauza biezana gura dauz gure ustez: «Aran» (valle) eta «otz» edo «ots» (frío). Eta bestera: «Aran» esan dogunez (valle) eta motz (achatado). Guk baño obeto Goikoetxea tar Nestor «Urdiola» jakitunak esango dauzku.

Dana dala, mendiak beti dauko zeozer ikusgarri mendigoxale'ontzat.